

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Alkatearen otsailaren 5eko 63/2019 Ebazpenaren laburpena, zeinak norgehiagoka bidezko dirulaguntzatarako deialdia egiten duen, euskararen ikaskuntza eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuak ordaintzeko 2018-2019 ikasturtean

BDNS (identifikatzailea): 440821

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

— Euskara ikasteko dirulaguntzak: Ondoko betekizunak betetzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Zigoitiko udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasten denean eta hala segitzea amaitu arte.

b) 16 urte edukitzea ikastaroan izena ematean.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegi batean edo Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikulatuta egotea.

d) Gutxienez ikastaroko orduen ehuneko 80an izatea.

— Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzak: Euskara sustatzen duten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta euskara sustatzea ez izan entitatearen xede nagusi bakarra, baldin eta entitatearen jardunak Zigoitiko udalerriari eragiten badio, egoitza bertan ez eduki arren.

Egoitza Zigoitian duten irabazteko asmorik gabeko entitateak Zigoitiko Udalerriko Elkartearen Erregistroan inskribatuta egon behar dira; aldiz, egoitza Zigoitian ez dutenak EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo EAEko Kirol Entitatearen Erregistroan egon behar dira inskribatuta.

Dirulaguntza eskatzen duena nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridiko publikoen zein pribatuen elkarte bada, eskaeran eta dirulaguntza ematen duen ebazpenean berariaz agertu behar dira elkarteko kide bakoitzak hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa (kide guztiak izango dira dirulaguntzaren onuradunak).

Bigarrena. Xedea

Dirulaguntzaren helburua da laguntza ematea euskararen ikaskuntza eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuak egitetik sortutako gastuak finantzatzeko.

Diruz lagunduko dira:

— Euskara ikasteko ikastaroen matrikula gastuak (udako ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegiak barne), 2018ko urritik 2019ko irailera bitartean eginak.

Ondoko gastu hauek ez dira sartzen, mota guztietako ikastaroetan: joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

— Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten eta 2019an garatu diren proiektuen antolaketak eragiten dituen gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri euskararen ikaskuntza eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuak ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen ordenantzak jasotzen ditu, hain zuzen, 2016ko apirilaren 20an onartua eta 2016ko ekainaren 6ko ALHAOn (64. zk.) argitaratuta.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira: aurkezten diren eskaerak alderatu egingo dira; deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera, lehentasun hurrenkeran jarriko dira, eta aipatutako irizpideak aplikatuz balorazio gehien lortzen dutenei esleituko zaizkie dirulaguntzak, hurrengo puntuan jarritako mugekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen barruan aurkeztu diren eskaeren ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 2019ko aurrekontuaren 335.480.000 aurrekontu aplikazioari egotziko zaio, "euskara ikasteko bekak" kontzeptuan.

Deitu beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 5.000 euro da guztira, 335.480.000 aurrekontu aplikazioan, 2019ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren arabera.

— Euskara ikasteko dirulaguntzak: Matrikularen kostuaren ehuneko 100 edo, ondoko taulan ikastaro mota bakoitzerako ezarritako gehieneko kopurua, matrikularen kostua gehiago izanez gero:

IKASTARO MOTA	DIRULAGUNTZA GEHIENEKOA
Ohiko ikastaroak (2018ko urritik 2019ko irailera bitartean, 2-3 ordu egunero)	850 euro ikastaroko
Ikastaro trinkoak (2018ko urritik 2019ko irailera bitartean, 5 ordu egunero)	1.250 euro ikastaroko
Barnetegiak (gutxienez 5 ordu egunero)	150 euro hilean ikastaroko
Autoikaskuntza ikastaroak (2018ko urritik 2019ko irailera bitartean)	650 euro ikastaroko
Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroak	150 euro ikastaroko

Baterako dirulaguntza eman ahal izango da ohiko ikastaroak eta barnetegiak egiteko, baldin eta denek badituzte helburu akademiko berak.

— Euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzak: proiektuaren kostuaren ehuneko 100, gehienez; dirulaguntza ezin da izan urteko aurrekontuko aplikazio egokian ezarritako diru kopurua baino gehiago.

Bosgarrena. Eskaerak eta justifikazioak aurkezteko epea

Euskara ikasteko dirulaguntzen eskaerak eta justifikazioak aurkezteko epea 2019ko urriaren 31n amaituko da (eskaerarekin batera hurrengo puntuan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu behar da).

Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzen eskaerak proiektua hasi baino hilabete lehenago arte aurkez daitezke, eta betiere 2019ko urriaren 31 baino lehen. Gastuaren justifikazioa hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko da, diruz lagundutako proiektua amaitzen denetik kontatzen hasita eta betiere 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Euskara ikasteko dirulaguntzak:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Ikastaroa egin den ikastetxeak emandako ziurtagiria, datu hauek argitzen dituen: hasi den ikastaroa eta amaitu den ikastaroa, ikastaroaren ordu kopurua guztira eta ikaslearen bertaratze portzentaia, ikastaroaren hasiera eta amaiera datak eta matrikularen kostu osoa.

Eskatzailea barnetegi batean izan bada, banakatuta zehaztu behar dira matrikula gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

3. Matrikula ordaindu dela frogatzen duen agiria.

Autoikaskuntza ikastaroan izan bada:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Irakaskuntza zentroarekin sinatutako kontratuaren kopia, datu hauek biltzen dituen: matrikularen zenbatekoa, kontratatutako aldia, emandako ordu kopurua, egindako mailak eta gainditutako maila.

3. Matrikula ordaindu dela frogatzen duen agiria.

4. Ikasten gutxienez 152 ordu edo, bestela, HABEk ikastaroa autoikaskuntzatzat jotzeko eskatzen dituen orduen ehuneko 80 eman direla frogatzen duen agiria. Hori dela eta, elkarriketetan, tutoretzan eta banako lanean egiten diren orduak zenbatuko dira.

— Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzak:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Proiektuaren memoria; datu hauek zehaztu behar dira: egingo diren jarduerak eta lortu nahi diren xedeak eta helburuak.

3. Proiektuaren gastuen eta sarreraren aurrekontua.

Ondategi, 2019ko otsailaren 5a

Jarduneko alkatea

NEREATXURRUKA GARATE